

ZER BERRI



Aizarnazabalen MARTXOA 2025

www.aizarnazabal.eus



“Zer berri Aizarnazabalen”

<https://t.me/zerberriaizarnazabalen>

GAIAK

1. HERRIKO PLAZAREN PROIEKTUAREN JARRAIPEN BILERA
2. GARIZUMALDIKO PRESTAKETA
3. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
4. EUSKARA ETA KULTURANIZTASUNA
5. JAIEN ANTOLAKUNTZA BILERA
6. TEK –AIZARNAZABAL ENERGI KOMUNITATEAREN BAZKIDE BILERA
7. EUSKARALDIA- HERRITARREI DEIALDIA
8. ZER BERRI ONLINE JASOTZEKO AUKERA

9. EKARPENGUNEEN EGOERA

1. HERRIKO PLAZAREN PROIEKTUAREN JARRAIPEN BILERA

Herriko plazaren proiektuaren jarraipen bilera bat antolatu da ostegun honetarako. Oraingoan aurreko bileran, abenduan, herritarrengandik jasotako ekarpenak eta aurrez jasotarikoak uztartu eta herritarrei azalduko zaio.

- **Eguna:** martxoak 6
- **Ordua:** 18:00etan
- **Lekua :** Lauburuko proiektzio gelan
-

2. GARIZUMALDIKO PRESTAKETA

Garizumaldiko prestaketa ekintzak ondorengoak izango dira:

- **Martxoak 5, Hauster eguna:** 17:30etan hitzaren liturgiarekin batera hautsaren ezartzea.
- **Martxoak 17 eta 24:** 20:00etan Hitzaldiak
- **Martxoak 31:** 20:00etan Adiskidetzeta/ Konfesioa

3. MARTXOAK 8- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Atzeko orrialdean doa Aizarnazabalgo Mugimendu Feministak eta udalak elkarlanean egun hau ospatzeko antolatu duten egitaraua.

4. EUSKARA eta KULTURANIZTASUNA. Ekintza plana osatzeko inkesta

Aizarnazabalgo Udalak datozen urteetan herrian euskara indartzeko ekintza plana diseinatu behar du, UEMAren laguntzarekin. Horretarako, zure iritzia beharrezko da, herrian euskarak egun duen egoera aztertzeko, ondo egindakoak eta zer hobetuak identifikatzeko eta aurrera begirako lan ildoak zehazteko.

Beheko loturan dagoen inkesta osatzea oso garrantzitsua da informazio jaso ahal izateko.

<https://forms.gle/FXQQ1naDyANzeAxQ8>

Martxoaren 12rako betetzea komeni da, lanketak aurrera jarraitzeko.

5. JAIEN ANTOLAKUNTZA BILERA

- Eguna: martxoak 20



- Ordua: 18:00etan
- Lekua: udaletxean

Bilera irekiak dira proposamenak partekatu edo eta antolakuntzan parte hartu nahi duen guztiarentzat.

6. TEK-AIZARNAZABAL ENERGI KOMUNITATEAREN BAZKIDEEN BILERA

Tek-Aizarnazabal energia komunitarioaren bazkideei ostegunean ospatuko den bilera parte hartzeko deialdia luzatzen zaie. Garrantzikoa da komunitatearen etorkizunaren ildoak zehaztu eta komunitatea garatzeko bazkideen hitza jasotzea eta parte hartzea. Bilera egunaen zehaztasunak:

- **Eguna:** martxoak 25, asteartea.
- **Ordua:** 18:00etan.
- **Lekua:** Laburuko proiektio gelan.

7. EUSKARALDIA. HERRITARREI DEIALDIA

Euskaraldiaren 4. edizioa, aurten, 2025ean egingo da. Aurreko hiruak ez bezala, udaberrian izango da, maiatzaren 15etik 25era. Aurtengo leloari helduz, “**Elkar mugituz egingo degu**”, beharrezko degu herriko eragile, elkarte eta banakakoen partaidetza. Oso oso garrantzitsua da herritar bakoitzak egin dezakeen ekarpen eta lana Euskaraldian.

Animatzeko eskatzen dizuegu. Antolakuntzaren parte hatu nahi duzuenok udaletxean edo eta liburutegian jakinarazi besterik ez dezute.

Zuen zain gaituzue!

8. ZER BERRI ONLINE JASOTZEKO AUKERA

Zer Berri hilero paperean jasoko da etxe guztietan. Online soilik jaso nahi dutenak liburutegia@aizarnazabal.eus emailera idatziz jakinarazi behar dute edo 943 147761 zenbakira deitu.

Beharrezko da izen abizenak eta helbidea jakinaraztea da (kalea, zenbakia, pisua eta eskua).

9. EKARPENGUNEEN EGOERA

Ekarpenguneen egoera azaltzen duten bi argazki dira beheko hauek. Azalpenak, bilera informatiboak...ez dute eraginik dirudienez. Ardura herritarrona da eta ondorioak herritarrok jasan beharko ditugu. Bata bestearengano errespetu kontu bat da hau, besteak beste.

